

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

MUGIKORTASUNEN ETA LURRALDE
ANTOLAKETAKO DEPARTAMENTUAMugikortasuneko eta Garraio Publikoko
Zuzendaritza Nagusia

Gidarien gaitasun profesionalaren ziurtagiria lortzeko probak egiteko deialdien oinarri arautzaileak.

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako foru diputatuak, 2010eko azaroaren 18an honako hau ebatzi du:

«Europar Parlamentuko eta Kontseiluko 2003ko uztailaren 15eko 2003/59/EB Zuzentaraua garatzen duen 2007ko uztailaren 20ko 1032/2007 Errege Dekretuak, Errepideko garraioa egiten duten zenbait ibilgailuren gidarien hasierako trebakuntza eta haien etengabeko prestakuntza arautzekoak, zehazten duenaren arabera, behin prestakuntza ikastaroa amaituta, hasierako trebakuntza egiaztatzen duen gaitasun profesionalaren ziurtagiria lortu nahi dutenek, I. eranskinean jasotako gaiei buruzko azterketa bat gainditu behar dute, sei hilabete baino lehen.

Bestalde, Errege Dekretuaren 15. artikulua arabera, azterketak honako hauek antolatuko dituzte: Bidaiarien nahiz salgaien errepedeko garraio publiko berezia egiteko baimenak emateko lurralde bakoitzean eskumenak dituzten organoek.

Eskumen hori erabiltzea foru aldundi honi dagokio, Gipuzkoan helbideratutako garraio txartelei dagokienez, hala xedatzen baitute 1983ko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak 10. artikuluan (Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta Lurralde Historikoko foru erakundeen arteko harremani buruzkoa), eta 1985eko martxoaren 5eko 30/1985 Foru Dekretuak (Garraio arloko zerbitzuak lurralde honi eskualdatzekoa).

Horrela, bada, 2005eko uztailaren 12ko 6/05 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren erakunde antolaketara, gobernu eta administrazioari buruzkoak, 40. artikuluan eta 2008ko maiatzaren 20ko 37/2008 Foru Dekretuak, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren egitura organiko eta funtzionalari buruzkoak (dekretu hori 2008ko abenduaren 16ko 80/2008 Foru Dekretuak aldatu zuen), 2. artikuluan esleitutako eginkizunak eta eskumenak erabilia, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako foru diputatuak

EBATZI DU

Lehenengo. Onartzea bide publikoetan ibilgailuak gidatzeko beharrezkoa den hasierako trebakuntza egiaztatzen duen gaitasun profesionalaren ziurtagiria lortzeko probak egiteko deialdien oinarri arautzaileak, Gidarien Erregelamendu Orokorrean jasota dauden C1, C1+E, C, C+E, D1, D1+E, D edo D+E kategorietako gidabaimenak izatea nahitaezkoa duten gidarientzat, hain zuzen.

Bigarren. Onartzea deialdiak arautuko dituzten oinarriak (foru agindu honen eranskin gisa doaz).

Hirugarren. Epaimahaikideak izendatzea (deialdiak arautzen dituzten oinarrietan adierazten dira kideen izenak).

DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE MOVILIDAD Y
ORDENACION DEL TERRITORIO

Dirección General de Movilidad y Transporte Público

Bases reguladoras de las convocatorias para la realización de las pruebas para la obtención del certificado de aptitud profesional de conductores.

La Diputada Foral de Movilidad y Ordenación del Territorio, con fecha 18 de noviembre de 2010 ha resuelto lo siguiente:

«El Real Decreto 1 032/2007, de 20 de julio, que desarrolla la Directiva 2003/59/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 15 de julio de 2003, por el que se regula la cualificación inicial y la formación continua de los conductores de determinados vehículos destinados al transporte por carretera, determina que finalizado el curso de formación, los aspirantes a la obtención del certificado de aptitud profesional acreditativo de su cualificación inicial deberán superar, en un plazo no superior a seis meses, contados desde dicha finalización, un examen que versará sobre el contenido de las materias incluidas en el Anexo I.

Por otra parte, el artículo 15 de dicho Real Decreto establece que los exámenes serán organizados por los órganos competentes para la expedición de las autorizaciones de transporte público discrecional de viajeros y mercancías por carretera en el territorio de que se trate.

La Diputación Foral de Gipuzkoa ejerce esta competencia en relación con las tarjetas de transporte residenciadas en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, conforme a lo dispuesto en el artículo 10 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Organos Forales de sus Territorios Históricos y en virtud del Decreto Foral 30/1985, de 5 de marzo, de traspaso de servicios a este Territorio en materia de Transportes.

En consecuencia, en virtud de las funciones y competencias atribuidas por los artículos 40 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y 2 del Decreto Foral 37/2008, del 20 de mayo, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio, modificado por el Decreto Foral 80/2008, de 16 de diciembre, esta Diputada Foral de Movilidad y Ordenación del Territorio

RESUELVE

Primero. Aprobar las bases reguladoras de las convocatorias para la realización de pruebas para la obtención del certificado de aptitud profesional acreditativo de la cualificación inicial, necesario para la conducción por vías públicas de vehículos para los que resulte obligatorio estar en posesión de permisos de conducción de las categorías C1, C1+E, C, C+E, D1, D1+E, D o D+E, definidas en el Reglamento General de Conductores.

Segundo. Aprobar las bases que han de regir las convocatorias, que figura en el Anexo de la presente Orden Foral.

Tercero. Designar a los miembros del tribunal, cuya composición figura en las bases que rigen las convocatorias.

Laugarren. Foru agindu hau eta bere eranskina Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko agintzea.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuak administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute haren kontra Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabete epean, Foru Agindua argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, edo, bestela, berraztertze hautazko errekurtsioa, hilabete epean, ebazpena eman duen organoan, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 43.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz».

Donostia, 2010eko azaroaren 18a.—Segundo Diez Molinero, idazkari teknikoa.

(6535)

(13447)

ERANSKINA

Errepideko garraioa egiten duten zenbait ibilgailuren gidariaren hasierako trebakuntza egiaztatzen duen ziurtagiria lortzeko proben deialdiaren oinarri arau-taileak.

Lehenengoa. Deitutako probak.

1. 2007ko uztailearen 20ko 1.032/2007 Errege Dekretuak 15. artikuluan ezarritakoaren arabera urtero sei deialdi egingo dira. Probak urtarilaren, martxoaren, maiatzaren, uztailearen, irailaren eta azaroaren bigarren hamabostaldian egingo dira.

2. Probak non eta zein ordutan egingo diren www.cap-gga.net web orrian argitaratuko dira.

Bigarrena. Izangaien betebeharrak.

1. Probak egiteko onartuak izateko, izangaiek baldintza hauek bete behar dituzte:

1) Nahitaezko ikastaroak gainditu izana, ohikoak zein trinkoak, proba hauek egin aurreko sei hilabeteetan, 2007ko uztailearen 20ko 1.032/2007 Errege Dekretuak 5., eta 6. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Ikastaroak egin izana aipatutako errege dekretuak 12.3 artikuluan aipatzen dituen ziurtagiriaren edo komunikazio telematikoaren bidez egiaztatuko da.

2) Ohiko bizilekua Gipuzkoako Lurralde Historikoa izatea, eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehenagotik, nahitaezko ikastaroa beste leku batean egin badu ere.

Izangaiaren ohiko bizilekua bere nortasun agirian ageri den helbidea izango da. Helbidea beste bat izatea onar daiteke kasu hauetan:

a) Izangaiak egiaztatzea, errolda-ziurtagiriaren bidez, bere bizilekua Gipuzkoan izan duela azken urtean gutxienez ehun eta laurogeita bost egun naturaletan (185), probak egiteko eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunera arte kontatuta.

b) Izangaiak modu sinisgarrian egiaztatu behar du, aurreko puntuan adierazitakoa baino epe laburragoan bere bizilekua Gipuzkoan izan arren, familia arazoak edo profesionalak behartuta finkatu duela bere bizilekua Gipuzkoan.

Cuarto. Ordenar la publicación de la presente Orden Foral y de su anexo en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

La presente Orden Foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Los interesados podrán interponer contra la misma recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo dos meses, contados desde el día siguiente al de la publicación de dicha Orden Foral, o potestativamente, recurso de reposición, en el plazo de un mes, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, de acuerdo con lo previsto en el artículo 43.1 de la Ley de 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Común».

Donostia-San Sebastián, a 18 de noviembre de 2010.—El secretario técnico, Segundo Diez Molinero.

(6535)

(13447)

ANEXO

Bases reguladoras para las convocatorias de pruebas para la obtención del certificado de cualificación inicial de los conductores de determinados vehículos destinados al transporte por carretera.

Primera. Pruebas que se convocan.

1. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 15 del Real Decreto 1.032/2007, de 20 de julio, anualmente se realizarán seis convocatorias que se desarrollarán en la segunda quincena de los meses de enero, marzo, mayo, julio, setiembre y noviembre.

2. El lugar y la hora de realización de las pruebas serán objeto de publicación en la página web www.cap-gga.net

Segunda. Requisitos de los aspirantes.

1. Para ser admitido a estas pruebas, será necesario cumplir los siguientes requisitos:

1.º) Haber superado los cursos preceptivos, ya sean en su modalidad ordinaria o acelerada, de conformidad con lo establecido en los artículos 5 y 6 del Real Decreto 1.032/2007, de 20 de julio, dentro de los 6 meses anteriores a la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes a las pruebas, que se acreditará mediante el correspondiente certificado o comunicación telemática a que se refiere el artículo 12.3 del Real de Decreto 1.032/2007.

2.º) Tener la residencia habitual en el Territorio Histórico de Gipuzkoa antes de la finalización del plazo de presentación de solicitudes, con independencia del lugar en que se hubiera realizado el curso preceptivo.

A estos efectos, se presumirá que la residencia habitual del aspirante será aquella que figure en el domicilio consignado en su documento nacional de identidad en vigor. Sólo se admitirá que el domicilio sea distinto al que aparece en dicho documento cuando se dé alguna de las siguientes circunstancias:

a) Que el aspirante acredite mediante el certificado de empadronamiento que ha tenido su domicilio en Gipuzkoa al menos ciento ochenta y cinco (185) días naturales del último año, contados hasta el día de finalización del plazo de presentación de solicitudes para concurrir a los ejercicios.

b) Que el aspirante acredite fehacientemente que, aun habiendo tenido su domicilio en Gipuzkoa por un periodo inferior al indicado en el punto anterior, han sido razones familiares o profesionales las que le han obligado a fijar su residencia en Gipuzkoa.

Baldintza hori ez da betetzat hartuko, iraupen zehatz bateko jarduera egiteko udalerrri batetan aldi bateko egonaldia izanez gero. Unibertsitatera, eskolara edo ikastetxera joateak ez dakar ohiko bizilekuz aldatzea.

c) Beste lurralde batetan bizi den izangaia izanik, organo deitzaileak probetara aurkezteko emaniko baimena izatea, egiaztatutako arrazoiak medio.

2. Deialdi bakoitzean parte hartzeko 19 euro ordaindu behar dira azterketa-eskubideen tasa gisa. Zenbateko hori 2008ko abenduaren 23ko 9/2008 Foru Arauaren zazpigarren xedapen gehigarriaren 3. paragrafoan ezartzen da. Hurrengo urteetan azterketa deialdietan parte hartzeko tasa, ekitaldi hartarako aurrekontu orokorrak onartzen dituen Foru Arauan eguneratutakoa izango da.

Hirugarrena. Eskaerak. Aurkezteko lekua eta epea.

1. Eskaerak arauzko eremuan egingo dira (oinarri hauen 1. eranskineko eremuan). Interesatuek lehen oinarrian aipatutako web orrian eskuratu dezakete eredia.

2. Probetan parte hartu nahi dutenek eskaera hemen aurkeztu behar dute: Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusiko erregistroa (Julio Caro Baroja plaza 2, behea –atzealdea– 20018 Donostia).

3. Aurkeztutako eskaerak aurkezten den deialdirako bakarrik balioko du. Ondorengo deialdietako probetan parte hartu nahi izanez gero, beste eskaera bat egin behar da.

Banketxean tasa ordaindu izanak ez du ordezkatzeko eskaera inprimakia garaiz eta behar bezala aurkeztea, oinarri hauetan adierazita bezala.

4. Probetan parte hartzeko eskaerekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Tasa ordaindu izanaren ordainagiria, erakunde finantzarioak behar bezala beteta eta balioztatuta. Tasa ordaintzeko inprimakia (oinarri hauen II. eranskin modura doa) lehen oinarrian adierazitako web orrian eskuratu daiteke edo, bestela, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio Zerbitzuan (Julio Caro Baroja plaza 2, behea –atzealdea–. 20018 Donostia).

b) Indarrean dagoen Nortasun Agiriaren kopia edo hura berritzen izatearen frogagiriaren kopia edo, hala dagokionean, atzeritarren nortasun txartela.

Nortasun agirian agertzen den helbidea Gipuzkoakoa ez bada, Gipuzkoan bizi dela egiaztatu behar du errolda-ziurtagiriaren bidez. Ziurtagirian adierazi behar da Gipuzkoan bizi izan dela azken urtean gutxienez 185 egun natural, azterketak egiteko eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunera arte kontatuta.

Errolda-ziurtagirian agertzen bada izangaia aipatutako 185 egun horiek baino denbora gutxiago bizi izan dela Gipuzkoan, dokumentazio egiaztagarria erantsi behar du, adieraziz zein familia arrazoiek edo profesionalek eragin dioten bere bizilekua Gipuzkoara aldatzera.

c) Bere bizilekua Gipuzkoan ez badauka, deialdia egin duen organoak probetan parte hartzeko emaniko baimena, egiaztatutako arrazoiak medio.

5. Eskaerako datuen baten gabeziak edo eskatutako agiriak edo ziurtagiriak ez aurkezteak izangaiak azterketetatik kanpo uztea ekarriko du.

Esta última circunstancia no se entenderá cumplida cuando se trate de una estancia temporal en una localidad para la realización de una actividad de duración determinada. La asistencia a una universidad, escuela o centro docente no implica el traslado de la residencia habitual.

c) Que el aspirante domiciliado en territorio distinto hubiera obtenido autorización del órgano convocante, por causa debidamente justificada, que le faculte para presentarse a las pruebas.

2. Para acceder a cada una de las convocatorias deberán abonarse 19,00 euros, en concepto de tasas por derechos de examen, cantidad fijada en el apartado 3 de la Disposición Adicional Séptima de la Norma Foral 9/2008, de 23 de diciembre. Para las convocatorias de exámenes a realizar en años sucesivos, la tasa será la actualizada conforme a la correspondiente Norma Foral aprobatoria de los Presupuestos Generales para cada ejercicio.

Tercera. Solicitudes. Lugar y plazo de presentación.

1. Las solicitudes deberán formularse en modelo normalizado que se recoge como anexo I de estas bases, pudiendo los interesados acceder a él en la dirección web señalada en la base primera.

2. Las personas que deseen tomar parte en las pruebas deberán presentar su solicitud en el Registro de la Dirección General de Movilidad y Transporte Público (Plaza de Julio Caro Baroja, 2 planta baja trasera 20018 Donostia-San Sebastián).

3. La solicitud presentada sólo será válida para la convocatoria a la que se presente, debiendo volver a cumplimentarla si desea realizar la prueba en convocatorias posteriores.

En ningún caso el pago de la tasa en la entidad bancaria supondrá la sustitución del trámite de presentación, en tiempo y forma, del impreso de solicitud, con arreglo a lo indicado en las presentes bases.

4. A las solicitudes para tomar parte en las presentes pruebas se acompañará la siguiente documentación:

a) Justificante del abono de la tasa debidamente cumplimentado y validado por la entidad financiera correspondiente. El impreso para el abono de la tasa, que se recoge como anexo II de estas bases, podrá obtenerse en la dirección web señalada en la base primera, o en el Servicio de Transportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa (Pza. Julio Caro Baroja, 2-trasera planta baja. 20018. Donostia-San Sebastián).

b) Copia del Documento Nacional de Identidad en vigor o copia del resguardo acreditativo de renovación o, cuando corresponda, tarjeta de identidad de extranjero.

Si el domicilio que figura en el documento nacional de identidad no es del Territorio Histórico de Gipuzkoa, el aspirante deberá acreditar la residencia en Gipuzkoa mediante certificado de empadronamiento en el que figure que ha tenido su domicilio en Gipuzkoa al menos 185 días naturales del último año, contados hasta el día de finalización del plazo de presentación de solicitudes para concurrir a las pruebas.

Para el caso de una antigüedad inferior a 185 días en el empadronamiento, deberá adjuntarse documentación acreditativa de las razones familiares o profesionales que le han obligado a cambiar su residencia al Territorio Histórico de Gipuzkoa.

c) En caso de no tener la residencia en Gipuzkoa, autorización emitida por el órgano convocante que le faculte a presentarse a las pruebas por causa debidamente justificada.

5. La carencia de cualquiera de los datos de la solicitud o de los documentos o justificantes exigidos dará lugar a la exclusión de los aspirantes.

Laugarrena. Izangaiak onartzea.

1. Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta haiek eta erantsitako dokumentazioa egiaztatu ondoren, lehen oinarrian adierazitako web orrian argitaratuko da onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda. Baztertutako kasuan, baztertzeko arrazoien berri emango da. Baztertutako izangaiak eta baita zerrendetan azaltzen ez direnek edo beren datuak gaizki dituztenek 10 laneguneko epea izango dute, behin-behineko zerrendak argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, erreklamazioak aurkeztu eta antzemandako akatsak zuzentzeko.

2. Erreklamazioak ebatzita eta alegatutako akatsak zuzenduta, aipatutako web orrian argitaratuko da onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda. Baztertutako kasuan, baztertzeko arrazoien berri emango da.

En el caso de que no se produjeran reclamaciones en dicho plazo o no se apreciaran errores de oficio, las listas provisionales se entenderán automáticamente elevadas a definitivas.

3. Azterketa-eskubideak itzuli egingo zaizkie baztertutako izangaiei. Horretarako, erreklamazioa aurkeztu behar dute, baztertutako behin betiko zerrenda argitaratzen denetik hila-beteko epean.

Bosgarrena. Azterketara aurkeztea.

Onartutako izangaiak NA edo euren nortasuna egiaztatzen duen agiri ofizial bat eraman behar dute azterketa egunean. Halakorik eramango ez balute, ezin izango dute azterketa egin.

Seigarrena. Probak egitea.

1. Probak 2007ko uztailaren 20ko 1.032/2007 Errege Dekretuaren I. eranskineko A paragrafoan ezarritako programaren arabera egingo dira (dekretu hori 2007ko abuztuaren 2ko *Estatuko Aldizkari Ofizialean*, 184 z., argitaratu zen).

2. Ariketak, horien egitura eta haiek kalifikatzeko erak errege dekretu horren lehen ataleko V. eranskinean ezarritakoak izango dira.

3. Azterketak test erako 100 galdera izango ditu, eta horietako bakoitzak lau aukera izango ditu erantzuteko. Erantzun zuzenak puntu bat gehitzen du eta zuzena ez denak 0,5 puntu kentzen ditu. Erantzuten ez diren galderak edo erantzun bat baino gehiago dituztenak ez dute ezer balio.

4. Azterketa gainditzeko lor daitezkeen puntu guztien erdia lortu behar da, gutxienez.

Zazpigarrena. Epaimahaia.

1. Epaimahaia kide hauek osatuko dute:

a) Titularrak:

— Epaimahaiburua: Xabier Lertxundi Agote.

— Mahaikideak: Aintzane Lauzirika Aspiazu., Fermin Pascal Esteban eta Maria Eugenia Oliden Genova.

— Idazkaria: Antonio Majó Trecu.

b) Ordezkoak:

Epaimahaiburua: Segundo Diez Molinero.

— Mahaikideak: Ana Maria Aizpurua Galdeano, Pura Susaño Ramos eta Olatz Egues Uriarte.

— Idazkaria: Alberto Arana Rod.

2. Komunikazioetarako, epaimahaiaren helbidea hau izango da: Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia (Julio Caro Baroja 2-4. 20018 Donostia).

Cuarta. Admisión de aspirantes.

1. Finalizado el plazo de presentación de solicitudes y comprobadas éstas y su documentación anexa, se procederá a publicar en la página web señalada en la base primera la lista provisional de admitidos y excluidos, con indicación, en el último caso, de la causa que motiva su exclusión. Los aspirantes excluidos, así como aquellos que no figuren en las listas o figuren con datos erróneos dispondrán de un plazo de 10 días hábiles, a contar desde el día siguiente a la publicación de las listas provisionales, para formular las oportunas reclamaciones y subsanar los defectos observados.

2. Resueltas las reclamaciones y subsanados los defectos alegados, se publicará en la citada página web el listado definitivo de aspirantes admitidos y excluidos, con indicación, en el último caso, de la causa que motiva su exclusión.

En el caso de que no se produjeran reclamaciones en dicho plazo o no se apreciaran errores de oficio, las listas provisionales se entenderán automáticamente elevadas a definitivas.

3. Los derechos de examen serán reintegrados a los aspirantes excluidos siempre que formulen la reclamación correspondiente en el plazo de un mes a partir de la publicación de la lista definitiva de excluidos.

Quinta. Presentación a examen.

Los aspirantes admitidos deberán concurrir a las pruebas provistos del Documento Nacional de Identidad o documento oficial acreditativo de su identidad. Su falta motivará la inadmisión del aspirante a las mismas.

Sexta. Desarrollo de las pruebas.

1. Las pruebas se ajustarán al programa establecido en el Anexo I (apartado A) del Real Decreto 1.032/2007, de 20 de julio (*Boletín Oficial del Estado* núm. 184 de 02 de agosto de 2007).

2. Los ejercicios a desarrollar, su estructura y su forma de calificación serán los establecidos en el Anexo V, Sección primera, del citado Real Decreto.

3. El examen constará de 100 preguntas tipo test, cada una de las cuales contará con cuatro respuestas alternativas, siendo las respuestas correctas valoradas con un punto y las erróneas se penalizarán con 0,5 puntos negativos. Las preguntas no contestadas o que contengan más de una respuesta no puntuarán ni positiva ni negativamente.

4. Para aprobar el examen será necesario obtener una puntuación no inferior a la mitad del total de puntos posibles.

Séptima. Tribunal.

1. El Tribunal de las pruebas tendrá la siguiente composición:

a) Titulares:

— Presidente: Xabier Lertxundi Agote.

— Vocales: Aintzane Lauzirika Aspiazu, Fermin Pascal Esteban y María Eugenia Oliden Génova.

— Secretario: Antonio Majo Trecu.

b) Suplentes:

— Presidente: Segundo Diez Molinero.

— Vocales: Ana María Aizpurua Galdeano, Pura Susaño Ramos y Olatz Egues Uriarte.

— Secretario: Alberto Arana Rod.

2. A efectos de comunicaciones el Tribunal tendrá su sede en la Dirección General de Movilidad y Transporte Público de la Diputación Foral de Gipuzkoa (Pza. Julio Caro Baroja, 2 – 4.^a planta. 20018 Donostia-San Sebastián).

Zortzigarrena. Gainditu duten izangaien zerrenda eta erreklamazioak egiteko epea.

Ariketak kalifikatuta, epaimahaiak web orrian argitaratuko du azterketa gainditu dutenen zerrenda.

Zerrenda horretan agertzen ez diren izangaiek hamar (10) laneguneko epea izango dute nahi dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamazioak ebatzita, epaimahaiak azterketa gainditu duten izangaien behin betiko zerrenda bidaliko dio Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako foru diputatuari.

Probak gainditu dituzten izangaien zerrenda onartzen duen diputatuaren Foru Aginduaren kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, Foru Agindua argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, edo, bestela, berraztertzeko hautazko errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoaren aurrean, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 43.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Octava. Lista de aspirantes declarados aptos y plazo de reclamaciones.

Terminada la calificación de los ejercicios, el Tribunal hará pública, en la página web, la relación provisional de aprobados.

Los aspirantes no incluidos en dicha relación dispondrán de un plazo de diez (10) días hábiles para presentar las reclamaciones que estimen convenientes.

Una vez resueltas estas reclamaciones, el Tribunal elevará la propuesta de relación definitiva de aspirantes que hayan resultado aptos a la Diputada Foral de Movilidad y Ordenación del Territorio.

Contra la Orden Foral de la Diputada aprobando la relación de aspirantes que han superado las pruebas podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo dos meses, contados desde el día siguiente al de la publicación de la Orden Foral, o potestativamente, recurso de reposición, en el plazo de un mes, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, de acuerdo con lo previsto en el artículo 43.1 de la Ley de 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Común.

I. ERANSKINA / ANEXO I

GGA LORTZEKO AZTERKETA EGITEKO ESKAERA
SOLICITUD DE ADMISIÓN A LAS PRUEBAS DEL CAP

A.- ESKATZAILEAREN DATUAK/ DATOS DEL SOLICITANTE

Izena/Nombre	1. abizena/1er. Apellido	2.abizena/2º Apellido	NA/DNI
Helbidea (kalea, zenbakia eta solairua)/Domicilio (calle,número y piso)			Probintzia/Provincia
Herria/Localidad	Posta Kodea/Código Postal	Telefonoa/Teléfono	Posta Elektronikoa/Correo Electrónico
Prestakuntza ikastaroa egin den zentroa/Centro en el que se ha realizado el curso de formación			
Modalitatea/Modalidad			Ikastaroaren amaiera data/Fecha en la que finalizó el curso

B.- AURKEZTEN DEN PROBAK/ PRUEBAS A LAS QUE SE PRESENTA

DEIALDIA/ CONVOCATORIA 1ª 2ª 3ª 4ª 5ª 6ª <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	AZTERKETA DATA/FECHA EXAMEN
<p>Dagokiona "x" bidez adierazi/Señale con una "x" el cuadro que corresponda.</p> <p><input type="checkbox"/> Bidaiarien errepideko garraioa egiten duten gidari profesionala/Conductor profesional de vehículo de transporte de viajeros por carretera.</p> <p><input type="checkbox"/> Salgaien errepideko garraioa egiten duten gidari profesionala/Conductor profesional de vehículo de transporte de mercancías por carretera.</p> <p>Zein hizkuntzetan egin nahi duzu azterketa /Idioma en el que desea realizar la prueba.</p> <p>EUSKERA <input type="checkbox"/> CASTELLANO <input type="checkbox"/></p>	
<p>Inprimaki honekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira:</p> <p>a) Indarrean dagoen NAREN fotokopia edo hura berritzen izatearen frogagiriaren kopia edo, hala dagokionean, atzerritarren nortasun txartela. Behar izanez gero, Gipuzkoako erroldako ziurtagiria, bigarren oinarriko 1-2 puntuaren arabera edota deialdia egin duen organoaren baimena, Lurralde Historiko honetan azterketak egiteko.</p> <p>b) Tasa ordaindu izanaren inprimakia, behar bezala balioztatuta. Hori http://www.cap-gga.net web orrian lor daiteke edo, bestela, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio Zerbitzuan.</p>	<p>A este impreso se acompañará:</p> <p>a) Fotocopia del DNI en vigor o copia del resguardo acreditativo de renovación o, cuando corresponda, tarjeta de identidad de extranjero. En el caso de ser necesario, certificado de empadronamiento en el Territorio Histórico de Gipuzkoa de acuerdo a la base Segunda punto 1-2 o Autorización del órgano convocante para poder realizar las pruebas en este Territorio Histórico.</p> <p>b) Impreso de abono de la tasa, debidamente validado. Éste puede obtenerse en la página web http://www.cap-gga.net o en el Servicio de Transportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa.</p>
<p>15/1999 Lege Organikoak, Datu pertsonalak babestekoak, 5. artikuluan xedatutakoari jarraituz, jakinarazten zaizu eskaera honetan jasotako datu pertsonalak fitxategi batean sartuko direla, prozedura honen kudeaketan erabili ahal izateko.</p> <p>Nahi izanez gero, datu pertsonalak eskuratu, zuzendu, deuseztatu eta haien aurka egin dezakezu Legeak ezarritako bezala. Horretarako, idatzi bat bidali behar duzu fitxategiaren arduradun den zerbitzu honetara.</p>	<p>En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 5 de la Ley Orgánica 15/1999, de protección de datos de carácter personal, se le informa de que los datos personales recogidos en esta solicitud, serán incorporados a un fichero para su tratamiento con la finalidad de la gestión de este procedimiento.</p> <p>Si lo desea puede ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición previstos en la Ley, dirigiendo un escrito a este Servicio como responsable del fichero.</p>

.....,200.....,...../En a de de 200....

Eskatzailearen edo horren ordezkariaren sinadura/ Firma del/de la solicitante o persona que lo representa

II. ERANSKINA / ANEXO II

TASA LIKIDAZIOA/LIQUIDACION DE TASAS

Behartua dagoena/Sujeto obligado:

Helbidea/Dirección:

Herria/Municipio:

Enpresa zk./Nº Empresa:

Azalpenak/Conceptos	Kodea Clave	Ordaintzera Importe
GIDATZEKO GAITASUN PROFESIONALAREN (GGA) ZIURTAGIRIA EZARTZEKO BAIMENAK/AUTORIZACIONES PARA LA IMPLANTACION DEL CERTIFICADO DE APTITUD PROFESIONAL PARA CONDUCTORES CAP.		
Ikastaroak emateko prestakuntza zentroentzako baimenak/Autorización de centros de formación para la impartición de cursos.	4.1.	
Prestakuntza zentruen baimenak ontzat ematea/Visados de la autorización de centros de formación.	4.2.	
Prestakuntza ikastaroen homologazioak/Homologación de cursos de formación.	4.3.	
Azterketa eskubideak/Derechos de examen.	4.4.	
Gidarietzako Gaitasun Profesionalaren Ziurtagiria luzatzea/Expedición del certificado de Aptitud Profesional para Conductores.	4.5.	
Gidarietzako Gaitasun Profesionalaren txartela luzatzea/Expedición de la Tarjeta de Aptitud Profesional para conductores.	4.6.	
Gidarietzako Gaitasun Profesionalaren txartela berritzea/Renovación de la Tarjeta de Aptitud Profesional para Conductores.	4.7.	
Tasen zenbatekoa guztira/Importe total tasas		
Tasa likidazio honen aurka ERREKLAMAZIO EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOA aurkez daiteke Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboan HAMABOST EGUNEKO epean, edo, epe berean BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko zuzendari nagusiaren aurrean.	Contra esta liquidación de tasas se podrá interponer RECLAMACIÓN ECONÓMICO-ADMINISTRATIVA ante el Tribunal Económico Administrativo Foral en el plazo de QUINCE DÍAS o, con carácter potestativo y en igual plazo, RECURSO DE REPOSICION ante la directora general de Movilidad y Transporte Público.	
Zenbatekoa zerbitzu eskaria egiteko garaian ordaindu behar da, Gipuzkoako Kutxako 2101.0381.08.00.03163797 zk. kontu korrontean sartuz.	El pago se realizará en el momento de solicitar la prestación del servicio, mediante ingreso en la Kutxa de Gipuzkoa c./c. 2101.0381.08.00.03163797	

Banketxearen balioztatzea/Validación bancaria.

--